

IUPI: Irisgarritasun Unibertsalerako Plan integrala osatzeko prozesuan murgildu da Andoaingo Udala

- **Hainbat bideetatik jasoko dira ekarpenak; horien artean, herritarren batzarra ere deituko da.**

Andoainen, 24-10-22.- Irisgarritasun egokia lortzea izango da, segur aski, instituzio publikoen zeregin nagusienetako bat. Herritar guztientzat eskuragarriak izango diren ingurune eta zerbitzuak lortzea da Udalen funtzioa.

Hala, helburu hori ortzimugan hartuta, Andoaingo Udalak Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala osatzeko prozesuari ekin dio. Prozesu hau izango da, hain juxtu, bide horretan ematen diren lehen urratsak jasoko dituen.

Prozesua bide anitzekoa izango da; hau da, espazio eta egitura ezberdinak sortu dira, iritzi ezberdinak jasoz, ahalik eta plan osatuena egituratzeko. Udaleko ordezkariekin osatutako mahaiaz gain, herritarrekin ere landu nahi da gaia, eta horretarako, **BATZAR IREKIA** antolatu du, kezkek, proposamenak eta iradokizunak biltzeko:

**Urriaren 30ean, asteazkena
18:30etan
Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan**

Guztion artean plan integralago, osatuago eta zabalagoa osatuko dugulakoan, Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu parte-har dezaten.

